



DEBAGOIENKO MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2021.03.23an EGINDAKO
BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

MAITE ANTON LENO

OÑATI

BOKALAK

GARAZI LARREA ZUMELAGA
UNAI ELKORO OIANGUREN
AINHOA CABERO GARCIA
MARIA UBARRETXENA CID
MAITANE MUÑOZ GOICOECHEA
ANDER GARAY ZABALETA
GORKA ARTOLA ALBERDI
AINHOA LETE ZABALETA
CRISTINA MARQUINA IGARZA
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
IZARO ELORZA ARREGI
ANIK ZUBIZARRETA ARTURO

ANTZUOLA
ARETXABALETA
ARETXABALETA
ARRASATE
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
BERGARA
BERGARA
ELGETA
OÑATI
OÑATI

ETORRI GABEAK

ARITZ MURUA ACHA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA
EUGENIO OTSOA UGALDE

ARRASATE
ESKORIATZA
LEINTZ-GATZAGA

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

2021eko martxoaren 23an, 9:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Maite Anton Leno anderea, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren ohiko bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

Martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapen bigarrenen ezarritakoarekin bat etorrituz (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, COVID-19ri aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloko premiazko neurri osagarriak onartzen dituen, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen duena), Gobernu Juntaren ohiko bilkura hau bideokonferentziaren bidez egin da, JITSI MEET aplikazioa erabiliz.

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Ander Garayk esaten du galde-erreguetan gehitu behar dela berak lehendakariari galdetu ziola zer egin behar zuen kontu-hartzailearen gaiari buruzko aholkularitza juridikoari dagokionez eta lehendakariak “ezer” erantzun ziola. Eta Garayk esan zuela kanpoko txosten juridiko bat eskatuta zegoela.

Ander Garayk esandakoa gehitu ondoren, Gobernu Juntak aho batez ONARTU DU 2021eko otsailaren 23an egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.

2.- ZERBITZU OROKORRAK

2.1.- Kobra-gaitzen espedientea onartzea

Kontu-hartzailearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Ondorengo kobrantza eskubideak kobra-gaitz izendatzea, agiriak dirubilketatik kenduz eta kobrantza eskubideak kontabilitatetik anulatuz:

ZERGA	AGIRIAK	URTEA	NAGUSIA	BEZ
Iragarkiak	2	2017	672,69 €	
Edukiontzia	3	2015	270,01 €	56,70 €
Epele	1	2013	64,28 €	
			1.006,98 €	56,70 €

2.2.- Prezio publiko berri bat onartzea

Kontu-hartzailearen txostena ikusirik, eta bere proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- 10 litroko 37 poltsa konpostagarrien paketearen prezio publikoa 1,73 €tan finkatzea.



3.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

3.1.- Enpresa Ekintzetarako Zentroa; fidantza bat bueltatzea

- V.D.L. (BANBU C.B.); fidantza bat bueltatzea

Enpresa Ekintzetarako Zentroaren modulu bat erabiltzeko emandako baimena dela eta aurkezturiko fidantza bueltatzeko espedientea ikusirik.

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudiak 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak aho batez ondorengoa ERABAKI DU:

- V.D.L. ekintzaileari bere egunean jarritako 830,34 €-ko fidantza bueltatzea.

3.2.- HAZILAN proiektuaren AKTIBATU faseko prestakuntza ekintzak garatzeko INNOBIDE,S.L. enpresarekin sinatutako kontratuaren bigarren luzapena

Zegokion kontratazio prozedura jarraitu ondoren, 2019ko ekainaren 17an sinatu zuen Mankomunitateak INNOBIDE, S.L. enpresarekin HAZILAN proiektuaren AKTIBATU fasean prestakuntza ekintzak garatzeko kontratua. Kontratu honetako hirugarren klausulan jasotzen da bere iraupena urtebetekoa dela, sinatzen denetik aurrera, eta urtero luzatu ahal izango dela, gehienez ere hiru urtez, hasierako epea barne; alegia, 2020. eta 2021. urteei dagozkien prestakuntza ikastaroak garatu eta emateko.

Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 29.2 artikulua arabera, luzapen hau nahitaezkoa izango da kontratistarentzat, baldin eta kontratuaren iraupen-epea amaitu baino gutxienez bi hilabete lehenago jakinarazten bazaio.

Izapidetutako espedientea ikusirik, eta Garapen Ekonomikorako Agentzia Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Aipatu kontratua beste urtebetez luzatzea, hau da, 2022ko ekainaren 16ra arte, 2021. urteari dagozkion prestakuntza ekintzak garatu eta emateko.

3.3.- Hainbat makina zaharkituren zuzeneko salmenta

Mankomunitate honek bere egunean Oinarrizko Lanbide Heziketa Programan erabilitako hainbat makina zaharkitu ditu bere lokal batean baztertuta. Besteak beste, honako hauek:

- Quantum D420x1000 bi tornu.
- Pinacho modelo SP-180x750 tornu paralelo bat.
- FTX 2 VARIO bi zutabe-taladro fresatzaileak bistaratzzailearekin.

Mankomunitateak 2007 aurretik erosi zituen makina hauek, eta gaur egun erabileraren ondorioz guztiz hondatuta daude. Makina hauen egungo balioa, balorazio-txostenaren arabera, erosketa-balioaren % 2,75 da.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Bestalde, Arrasaten kokatuta dagoen EKIDE GROUP, S.L. enpresak bere langile berriak eta praktiketan hartzen dituen ikasleak trebatzeko oinarrizko mekanikako tailer bat jartzeko asmoa du eta Mankomunitatearekin harremanetan jarri zen makina horien egoeraz informatu eta bere interesa adierazteko. Aipatu enpresak makina hauen konpontze eta birgaitze lanak prestakuntzaren bitartez egingo lituzke, oinarrizko mekanikako tailer hori hornitzeko.

Kontuan hartuz Herri Administrazioen Ondareari buruzko 33/2003 Legearen 143.1 artikulua ahalbidetzen duela ondasun zaharkituen, galkorren edo erabileraren bidez hondatutako ondasun higigarriak zuzenean besterentzea.

Gobernu Juntak, Agentzia Batzordearen proposamena jarraituz, aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Goian zehaztutako Mankomunitatearen makina zaharkituak EKIDE GROUP, S.L. enpresari zuzenean saltzea 1000 €ko prezioan, gehi BEZ. Aipatu enpresak egin beharko ditu bere beharretarako beharrezko diren konpontze eta egokitze lan guztiak.

3.4.- Enpresa eta energia arloko behin behineko teknikari bat izendatzeko proposamena

2018. urtean Mankomunitate honek Foru Aldundiak finantzatutako hainbat proiektu garatu eta kudeatzeko behin behineko teknikari bat izendatzeko hautaketa prozesu bat burutu zuen, eta horren ondorioz, Oihana Agirre teknikaria izendatu zuen urtebeterako.

2019. urtean, Garapen Agentzia Zerbitzuak Foru Aldundiak lagundutako beste zenbait proiektu kudeatzeko, besteak beste, DEE-CED, Etebalio+, Aktilan, etabar, beste urtebeterako izendapena egin zitzaion Oihana Agirreri.

2020. urtean, Foru Aldundiak lagundutako beste zenbait proiektu kudeatzeko, besteak beste, Sinkro, Giltzarri, Partailab, Talentuz Blai, Kidegune, etabar beste urtebeterako izendapen bat egin zitzaion.

Orain, Garapen Agentziako enpresa zerbitzuak Foru Aldundiak lagundutako beste zenbait proiektu kudeatu behar ditu 2021. urtean, besteak beste, "Eskualdeak" programa eta "Industria 4.0." Horretaz gain, Agentziak 2021-22rako argitaratuko den deialdian, enpresa eremuko beste proiektu batzuk aurkezteko asmoa du eta horien kudeaketa ere burutu beharko du. Bestalde, Debagoieneko Mankomunitateak, Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuarekin "Eskualdeko Energia Mahaia" eta berari lotutako proiektuak garatzeko hitzarmen bat sinatuko du hilabete honetan eta horren babesean beste hainbat ekintza burutu beharko ditu 2021. urtean eta 2022. urtearen hasieran.

Idazkariak ohartarazten du teknikari honek dagoeneko hiru urte bete dituela behin behineko izendapenekin. Hau laugarren urterako izendapena litzatekeela.

Gobernu Juntak, Garapen Agentzia eta Pertsonal Batzordeen proposamena jarraituz, aho batez ZERA ERABAKI DU:



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

- O.A. teknikaria beste urtebeterako izendatzea apirilaren 9tik aurrera, hau da, 2022ko apirilaren 8ra arte, aipatu proiektuak garatu eta kudeatzeko, orain arteko baldintza berdinetan.

3.5.- Turismo arloan Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa

Hasteko, Garapen Agentzia Batzordearen irizpenaren eta Pertsonal Batzordearen proposamenaren berri eman da. Hona hemen Pertsonal Batzordearen proposamena:

“Turismo arloan Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa aurkeztu da. Programa honen helburua turismo-arloko giza baliabideak ahalik eta ondoen erabiltzea da, turismo zerbitzua emateko ahalik eta eraginkortasun handiena lortzeko eta eskura dauden baliabide ekonomikoak ahalik eta efizientzia handienarekin erabiltzeko. Horretarako, Mankomunitateko turismo arloko hiru lanpostuen eginkizunak, zereginak eta erantzukizunak berrantolatzea eta zerbitzuaren beharretara egokitzea proposatzen da. Programa honen bidez, turismo arloko behar guztiak bete nahi dira Mankomunitateko hiru teknikariek, bitarteko izendapenik egin gabe uda garaian.

Horretarako, turismo arloko zeregin guztiak, Arantzazuko Turismo Informazio Zentroaren arreta eta bisita gidatuak barne, hiru teknikarien artean banatzea proposatzen da, teknikari bakoitza esleitzen zaizkion proiektu turistikoaren garapenaz eta kudeaketaz arduratuko delarik. Hiru teknikariek modu koordinatuan jardutea proposatzen da, Garapen Agentzia Zerbitzuko arduradunaren mende zuzenean, Zerbitzuko gainontzeko langileak bezala.

Era berean, hiru lanpostuei dagozkien ordainsariak berdintzea proposatzen da, eta, beharrezkoa balitz, 2021eko lan-egutegiak egokitzea.

Ondoren, Ana Herizek bere desadostasuna adieraziz aurkeztutako idatzia irakurri da. Idatzi honetan, besteak beste, eskatzen du turismo arloko langileen eskuragarritasun eta premien azterketa kanpoko enpresa batek egitea, gutxienez ondorengo alderdi hauek zehaztuz:

- *Turismo arloko zerbitzuaren eskaintzaren zehaztapena.*
- *Eskaini nahi den zerbitzua garatzeko pertsonalaren perfilak eta betebeharrak zehaztea.*
- *Langileen funtzioen banaketaren zehaztapena.*
- *Ordutegiaren zehaztapena.*
- *Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa hau martxan jartzeko kronograma.*

Turismo arloko beste bi teknikariek eta langileen ordezkariak Programa honekiko bere adostasuna adierazi dute.

Hau guztia kontuan hartuta, Pertsonal Batzordeak honako hau proposatzen dio Gobernu Juntari:

1. *Turismo arloan Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa honi hasierako onespina ematea, eta baita bertan aurreikusitako neurriak gauzatu ahal izateko 2021eko Plantila Organikoaren eta Lanpostuen Zerrendaren aldaketari ere.*



DEBAGOIENKO MANKOMUNITATEA

2. *Kanpoko enpresa bat kontratatzea, dagokion prozedura jarraituz, Programa honetan jasotako neurriak garatzeko hiru teknikarien parte-hartzearekin.”*

Ana Heriz turismo teknikariak aurkeztutako idazkiaren berri ere eman da. Idazki honetan Ana Herizek eskatzen du Turismo arloko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko “*programa hau ez onartzea kanpoko aholkularitza batek turismo arloko langileen eskuragarritasun eta premien azterketa egin arte. Programa hau martxan jarri aurretik beharrezkoa baita zerbitzuaren eskaintza, antolaketa, langileen funtzio banaketa, betebeharrak eta ordutegiak zehaztea.*”

Ondoren, Ander Garayk, Arrasateko ordezkarien izenean eskatu du Programa hau onartu aurretik kanpoko enpresa baten aholkularitza kontratatzea turismo arloko beharrak, antolaketa, lanpostuen funtzioak, egutegiak, ordutegiak, etabar zehazteko eta dagokion Negoziazio Mahaia eratzea.

Garazi Larreak jarraitutako prozesuaren berri eman du eta esan du hiru teknikariekin hainbat bilera egin direla gai honi buruz eta bai Garapen Agentzia Batzordean, bai Pertsonal Batzordean gaia tratatu dela.

Azkenik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Aholkularitza enpresa bat kontratatzea, dagokion prozedura jarraituz, aipatu alderdiak zehazteko eta lehenbailehen programa hau martxan jartzen laguntzeko.
2. Derrigorrezkoa balitz, dagokion Negoziazio Mahaia eratzea.

4.- LEHENDAKARITZA

4.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

21/11.- JOSÉ PINTO IGLESIAS abokatuak, L.M.U.A. jaunaren eta MGS, SEGUROS Y REASEGUROS, S.A.-ren mandatari gisa, aurkeztu duen

1.- Ondare erantzukizuneko espediente administratiboa irekitzea, goian adierazitako egitateengatik ibilgailuak jasandako kalteengatik kalte-ordaina jasotzeko eskubidea ote dagoen zehazteko.

2.- Mankomunitate honetako funtzionario den Belen Txinturreta Iparragirre andrea espedientearen instruktore izendatzea.

21/12.- 21/04 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BERREHUN ETA HOGEITA BAT MILA LAUREHUN ETA HOGEITA HAMAZORTZI EURO ETA BERROGEITA HAMABOST ZENTIMO (221.438,55 €).



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

21/13.- 1.- KOLDO AZKOITIA ZUBIZARRETAri eta LUIS LONBIDE SAGASTIZABALI baimena ematea Arrasateko Udalak burutuko duen hautaketa prozesuan laguntzeko.

2.- Aipatu langileek zehazki adierazi beharko dituzte eginkizun horretan emandako orduak, egindako bileren aktak edo epaimahaiko idazkariaren ziurtagiria aurkeztuz Mankomunitateko idazkaritzan. Ordu horiek Mankomunitatean egindako lanordutzat joko dira.

3.- Arrasateko Udalak, zerbitzu horren ondoriozko kalteordainei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren 121/2006 Dekretua aplikatu beharko du, aurreikusitako kalteordainak Mankomunitateari ordainduz.

21/14.- 2021ko otsaileko nomina arrunta onartzea ondorengo laburpenaz:

Langileen ordainsariak	Soldata	Gizarte segurantza	Elkarkidetza	Km	Atxikipenak	Likidoa
Karguak	3.087,54 €	1.167,10 €	0,00 €			
Funtzionarioak	62.523,68 €	17.184,53 €	1.736,76 €	9,28 €		
Interinoak	16.355,45 €	5.597,25 €	230,31 €			
Laboralak	45.631,11 €	17.225,74 €	1.021,74 €			
Guztira	127.597,78 €	41.174,62 €	2.988,81 €	9,28 €	34.633,33 €	92.973,73 €

21/15.- BAIMENA EMATEA Gipuzkoako Foru Aldundiari, Mankomunitate honen komunikazio telefonikoen datuak enpresa hornitzaileari eskatu eta horiek eskuratzeko, kontratazio espedientea arautuko duten baldintza agirietan jaso ahal izateko.

21/16.- 21/05 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BOSTEHUN ETA HOGEITA BOST MILA ETA BERROGEI EURO ETA BERROGEITA BAT ZENTIMO (525.040,41 €).

Gobernu Juntako kideen legezko gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin premiazkoztat jo ondoren, gai-zerrendan sartu gabeko ondorengo puntuak aztertzeari ekin zaio.

Debagoieneko Energia Plana bultzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetza hitzarmena

Gipuzkoako Foru Aldundiak Debagoieneko Energia Plana bultzatzeko proposatutako lankidetza hitzarmena eta 2021erako Ekintza Proposamena azterturik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin aipatu hitzarmena sinatzea, proposatutako testuaren arabera, 2021erako ondorengo ekintzak jasoz:

Bertako langileak (Oihana Agirre) 20.000,-

Kanpoko aholkularitza espezializatua / beste zerbitzu batzuk 28.000,- kontratatzea



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Energia planaren berrikuspena eta eguneraketa	3.500,-
Pobrezia eta Zaurgarritasun energetikoaren inguruko jarduketak	2.500,-
Sektore publikoa (Jasangarritasun legea, energia berriztagarriak,...)	8.000,-
Beste sektoreak (efizientzia energetikoa, beroaren aprobetxamendua)	11.000,-
Informazio eta sentsibilizazio ekintzak	3.000,-
Argitalpenak eta bestelako gastuak	2.000,-
GUZTIRA	50.000,-

Kreditu gaikuntza bidezko kreditu aldaketaren 2021-KALD-000001-00 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena

Mankomunitate honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena eta ziurtagiria aztertu dira. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 31. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia aztertu ondoren, Mankomunitateko Gobernu Juntak aho batez **ZERA ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Onartzea Mankomunitate honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

GASTUAK

Kap.	Izena	Euroak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	24.200,00
6	INBERTSIO ERREALAK	23.800,00
GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA		48.000,00

SARRERAK

Kap.	Izena	Euroak
4 (SARRERAK)	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	24.200,00
7 (SARRERAK)	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	23.800,00
FINANTZAKETA GUZTIRA		48.000,00



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

Epeleri buruzko aukeren azterketa

Epeleko zabortegeari buruzko aukera desberdinak aurkeztu eta aztertu dira. Gai honi buruz Eusko Jaurlaritzarekin izandako bileren berri ere eman da.

Hona hemen azterlan horretatik ateratako ondorioak eta aho batez onartutako proposamena:

“Epeleko zabortegia Mankomunitatearen lurralde-eremuko industria- eta eraikuntza-sektoreari zerbitzua emateko sortu zen 1993. urtean. Lurralde-eremu hori Mankomunitatea osatzen duten 8 udalerrietako udal-mugarteekin bat dator.

Lurralde-eremuaren muga horrek, besteak beste, bere bideragarritasun ekonomikoa zapuztu du eta zabortegi zerbitzu hau Debagoienera mugatuz erabat defizitarioa izanik, gaur egun zabortegia kanpo erabiltzaileentzat itxita dago 2018/09/14tik.

Baina Euskal Autonomia Erkidegoaren beharra aintzat hartuz, Mankomunitate hau prest egongo litzateke, Eusko Jaurlaritzarekin dagokion hitzarmena sinatuz, zabortegi zerbitzu hau Autonomia Erkidegora zabaltzeko.

Aipatu hitzarmenak hiru oinarri izan beharko lituzke:

1. **Hondakin sortzaileek hartu beharko dituzte bere gain zerbitzu honen koste guztiak**, Debagoieneko herritarrek ezin baitute inola ere Autonomia Erkidegoko industriari eskainitako zerbitzu baten kostu ekonomikorik jasan.
2. **Zabortegia Debagoieneko Mankomunitateak kudeatuko luke zuzenean**, zerbitzua ingurumen babes eta segurtasun neurri guztiak bermatuz eskainiko litzatekeelarik.
3. **Eusko Jaurlaritzak finantzatuko luke Epeleko zabortegia berriro martxan jartzeko egin beharreko inbertsioa** eta zerbitzua bideragarri den heinean, Eusko Jaurlaritzari jarritako finantzaketa osoa itzuliko litzaioke.

Hitzarmen horretan zabortegian jaso litezkeen hondakinen izaera eta mugak ere zehaztuko lirateke, zabortegiaren egonkortasun geoteknikoa eta segurtasuna bermatzeko helburuz.

Mankomunitatearen oinarritzko proposamen hau onartuz gero, bi aldeek lankidetzaz hitzarmen hau arautuko duten klausulak zehaztu beharko dituzte.

Ez bada epe laburrean proposamen hau onartzen, Mankomunitateak Epeleko zabortegiaren erabateko zigilatze prozedura abiatuko du.”

Proposamen hau Eusko Jaurlaritzari helaraziko zaio.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

6.- GALDE-ERREGUAK

- **Gipuzkoako Ingurumen Gunearen 1 fasearen kontratua gauzatzeari dagokionez, Mankomunitate honetako behin-behineko kontu-hartzaileak Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko kontu-hartzaileari egindako argibide-eskaera.**

Gai honi buruzko ondorengo dokumentazioa banatu da:

- Kontu-hartzailearen argibide-eskaera.
- GHKko Batzar Orokorraren erabakia.
- GHKren txosten juridikoak.
- Mankomunitateko behin behineko idazkariaren txostena.

Kanpora eskatuta dagoen txosten juridikoa iristen denean banatuko da.

Ander Garayk esan du berak Ondasun Batzordea faltan botatzen duela horrelako gaiak Gobernu Juntara ekarri aurretik bertan komentatzeko.

Kontu-hartzaileak esan dio ez dela quorumik lortzen Batzordearen bileretan.

Ander Garayk eskatu dio Ogasun Batzordeko lehendakariari, Gorka Artolari, informazioa behintzat bidaltzeko, nahiz eta bilerara ez deitu. Edo Batzordearen bilera Gobernu Juntaren bilera aurretik egiteko.

- **Olio bilketa zerbitzuaren esleipenaren aurka ECOGRAS enpresak jarritako errekurtsuari buruzko Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren Ebazpena.**

Idazkariak olio bilketa zerbitzuaren esleipenaren aurka ECOGRAS enpresak jarritako errekurtsuari buruzko Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren Ebazpenaren berri eman du. Ebazpen honetan ECOGRASek jarritako errekurtsua onartzen da, esleipen erabakia deuseztatuz. Beraz, orain ECOGRAS enpresari esleitu behar diogu kontratua, dagokion dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Gobernu Junta jakinaren gainean gelditu da.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 11:00etan, bukatutzat eman da bilkura.

LEHENDAKARIA

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA